

MUGIKORTASUN MAHAIA

Eguna: 2016/11/29

Ordua: 19:10

PARTAIDEAK		
Fermín Sukia	J.M. Santamaria	Aitor Velázquez
Manolo Iturrioz	Arantxa Fernández	Aitor Escalante
Amparo Díaz de Cerio	Carlos González	
D´Elikatuz		

19:20ak aldera bilkurara sartu da Iñaki Dubreuil.

Mahaiaren lehenengo deialdi hau hasi baino bi ordu lehenago EH Bilduk eta Ordizia Orainek idazkia aurkeztu dute, mahai honetan ez dutela parte hartuko esateko.

- Jose Miguel Santamariak aurkezpen txiki bat egin du, eta bertan direnei EH Bilduk eta Ordizia Orainek aurkeztutako idazkiaren berri eman die. Esan du mahai horren asmoa hutsetik abiatzea dela, eta aukera guztietara zabalik dagoela.
- Gemmak galdetu du ea, bi alderdi horiek mahaiaren ez eginda, hartuko diren erabakiak gauzatuko diren.
- Carlos Gonzalezek esan du: "gaur egunera arte, inork ez du zalantzan jarri mahai osatzea". Gehitu du, halaber: "gobernu-batzorde guztietan aipatu izan da hondakinen gaia aztertzeko mahaiaren erabilitako metodo berbera erabiltzea, zehazki gobernu-batzordean azaldu zen lau herritar zozketaz izendatzea, bost alderdietako ordezkari bana, udal teknikari bat (udaltzainburua), dendarien ordezkari bat eta alkatea izatea mahaikideak; inork ez zuen eztabaidatu erabaki hori, ezta proposamenari ñabardurarik egin ere". Esku-hartzeari amaiera emateko esan du mahai horrek erabateko zilegitasuna daukala.
- Fermin Sukiak hitza hartu eta esan du denda txikiak oso kezkatuak daudela mugikortasunaren gaiarekin.
- Aitor Velazquezek esan du, bere iritziz alderdi guztiek egon beharko luketela mahaiaren.
- Iñaki Dubreuilak esan du, tamalgarria dela, hondakinen mahaiarekin izandako arrakastari erreparatuta, karga politiko txikiagoa duen eta gizartea gutxiago

banatzen duen mugikortasunaren gai honek (sinpleagoa bera eta hutsetik abiaraztekoa) horren jarrera kontrajarriak eragitea.

- Carlos Gonzalezek esan du mugikortasunaren mahaia abiarazi beharra dagoela. Bere iritziz, eragile guztiei luzatu beharko litzaieke berriro ere gonbidapena. Gainera, esan du ez duela ulertzen zergatik jartzen zaion oztoporik herritarren parte-hartzeari.

19:40ak aldera, bi alderdi horiek mahaian ez egotearen gaia ebatzita, mugikortasunaz hasi dira hizketan.

- J.M Santamariak mahaiari azaldu dio gau egun hiru proposamen daudela. 'Endara' enpresak landu zuen mugikortasun-plana, udaleko hainbat teknikarik landutako agiria, eta 2014an 22 merkatarik egin zuten proposamena. Iñaki Dubreulek azken urteotan egin diren azterlan guztiak ekarri ditu gogora, labur. Azterlan horien guztien ondorioek Ordizia azoka- eta merkataritza-herria dela erakusten dute. Horrez gain, azterlan horiek diote adineko pertsonak, desgaituak edo mugikortasun-arazoak dituzten pertsonak, genero-ikuspegia, eta bestelakoak hartu behar direla kontuan.
- Fermin Sukiak berriro gogorarazi du Ordizia zerbitzu-herria dela; hortaz denda txikiak babestu behar dira.
- Mahai honetan hitz egiten den guztia herritarrei helarazi behar zaiela proposatu du Carlos Gonzalezek. Erabateko gardentasuna. Bere iritziz, mahai honetan hiru ardatz nagusi aztertu beharko lirake: Trafikoaren ordenamendua, aparkatzeko ordenamendua eta bide-segurtasuna.
- Manuel Iturriotzek berak landutako lan-agiria aurkeztu du, mahai honetan aztertzeko hainbat iradokizun jasotzen dituen. Agiri hori mahaiko kide guztiei pasako zaie.

ONDORIOAK:

- Orri zuria. Ekarpen guztiak ongi etorriak izango direla, eta mahaia ez diola ezin proposamenei ateak itxiko esan nahi du.
- Erabateko gardentasuna.
- 3 lan-ildo: trafikoaren ordenamendua, aparkatzeko ordenamendua eta bide-segurtasuna.

Mahaia berriro azpimarratu du alde guztiek parte hartu beharko luketela, eta, beraz, hurrengo bileretarako deia egiten die.

Mahaia aho batez erabaki du bilerak grabatzea.

Hurrengo bilera abenduaren 12an, 19:30ean egitea erabaki da. Bilerek gehienez ere 90 minutu iraungo dute.

20:25ean bukatu da mugikortasun-mahaiaren lehenengo bilera.